



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIÓN**

6807

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau aurkezten diote azken asteetan izandako bortizkeria- eta poliziarekiko enfrentamendu-ekintzak kondenatzeari buruzko LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENARI. 12\11\02\01\00245

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

"1.- Eusko Legebiltzarrak irmotasun handienaz kondenatzen ditu azken asteetan Euskadiko hiri eta herrietan gertatu diren bortizkeria-ekintzak eta poliziarekiko enfrentamenduak, pertsona batzuen jokabide ez-solidarioen eta gizalegearen kontrako erakusgarri, zeinek herritarren bizikidetzaz asaldatzen baitute, eta, horrez gain, pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-arauak urratzen baitituzte.

2.- Eusko Legebiltzarrak bere laguntza eta babesa erakusten dio Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziarri COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko emandako osasun-arauak betetzen direla bermatzeko egiten duen lanean".

Gasteizen, 2021eko irailaren 30ean

EUSKO ABERTZALEAK

EUSKAL SOZALISTAK

EUSKAL TALDE POPULARRA

